



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2024ko urriaren 14a

116. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### B SAILA:

##### **Foru-lege proposamenak:**

—11-24/PRO-00013. Foru Legea, zeinaren bidez aldatzen baita abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategina onesten duena. Osoko Bilkurak onetsi du (3. or.).

#### E SAILA:

##### **Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

—11-24/MOC-00103. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita azter dezan adimen artifiziala ezartzeko aukerarik ote dagoen itxaron-zerrendetako datuak hobeki tratatzeko eta hobetzeko. Osoko Bilkurak onetsi du (6. or.).

—11-24/MOC-00107. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita akordio instituzionala bila dezan Nafarroako Parlamentuan ordezkaturik dauden indar politikoekin, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin, gizarte-erakundeen parte-hartzearekin, giza eskubideak blindatzeko eta gorrotozko diskurtsoei aurre egiteko. Osoko Bilkurak onetsi du (6. or.).

—11-24/MOC-00115. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak errefusatu egiten baititu emakumeen eskubideen arloan munduan zehar gertatzen ari diren indarkeria eta atzerakada egoerak. Osoko Bilkurak onetsi du (7. or.).

—11-24/MOC-00097. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita amaiarazi dezan hezkuntzaren esparruan adingabeak ideologikoki doktrinatzeko saio oro. Osoko Bilkurak ezetsi du (8. or.).

—11-24/MOC-00104. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita gure erkidegoko langile autonomoen sektoreak proposatutako neurriak jaso ditzan aurrekontuen aurreproiektuan. Osoko Bilkurak ezetsi du (8. or.).

—11-24/MOC-00109. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita behar adinako dirukopurua jaso dezan hurrengo aurrekontu orokorretan, MRR funtsak agortu ondotik eta EEbP programako funtsak gaizki kudeatze heldu diren kalteek sortutako desoreka ekonomikoei aurre egiteko. Osoko Bilkurak ezetsi du (8. or.).

- 11-24/MOC-00113. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita gizarte-zerbitzuen programa komunitario bat taxutu dezan. Osoko Bilkurak ezetsi du (9. or.).
- 11-24/MOC-00114. Erabakia, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita Barajasko aireportuan dauden ekintzaile sahararrei asiloa ukatu izana berrazter dezan, horien asilo-eskaria modu justu eta gardenean aztertzen dela bermatuta, nazioarteko zuzenbidearen arabera. Bizikidetasunaren eta Nazioarteko Elkartasunaren Batzordeak onetsi du (9. or.).
- 11-23/MOC-00042. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita gardentasunaren nahiz publizitate aktiboaren arloetan dituen betebehar guztiak bete ditzan. Erabakiaren betetzeari buruzko erabakia (10. or.).

---

**B saila:**  
**FORU-LEGE PROPOSAMENAK**

---

**11-24/PRO-00013. Foru Legea, zeinaren bidez aldatzen baita abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategina onesten duena**

*OSOKO BILKURAK ONETSI DU*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2024ko urriaren 3an egindako bilkuran, honako foru lege hau onetsi zuen: Foru Legea, zeinaren bidez aldatzen baita abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategina onesten duena.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 166. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2024ko urriaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**Foru Legea, zeinaren bidez aldatzen baita abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategina onesten duena**

**HITZAURREA**

Minbizia eta gaixotasun larri jakin batzuk dituzten seme-alaben zaintza errazte aldera, langile guztiek, bai sektore publikoek bai pribatukoek, zirkunstantzia jakin batzuetan aitortuta daukate ordainsari-murrizketarik ez dakarren lanaldi-murrizketarako eskubidea. Sektore publikoaren kasuan, zuzenean; eta sektore pribatuarenean, Gizarte Segurantzaren prestazio baten bidez.

Sektore pribatuarentzat, eskubide hori jasota dago 677/2023 Errege Dekretuan, uztailaren 18koan, zeinak aldatu egiten baitu 1148/2011 Errege Dekretua, uztailaren 29koa, Gizarte Segurantzaren sisteman aplikatu eta garatzekoa minbiziak edo

beste gaixotasun larri batek jotako adingabeen zaintzarako diru-prestazioa. Sektore publikoarentzat, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginean jasotzen da, eta zenbait aldaketa egin zaizkio.

Nafarroan, eta Nafarroako administrazio publikoetako estatutu-araubidearen arloan dugun eskumen eksklusiboaren ondorioz, urtarrilaren 23ko 5/2013 Foru Dekretuaren bitartez aldatu zen otsailaren 9ko 11/2009 Foru Dekretua, Nafarroako Administrazio Publikoetako funtzionarioen opor, lizentzia eta baimenen erregelamendua onesten duena, aipatu lizentzia hori gure ordenamenduan txertatu eta, horrela, lanaldi-murrizketa ahalbide-tze aldera, minbizia edo zuzeneko eta etengabeko zaintza iraunkorra izatera behartzen duen beste gaixotasun larri bat duten seme-alabak zaintzekoa. Aipatu foru dekretua 2021ean izan zen aldatua; eta, gero, martxoaren 29ko 12/2023 Foru Legearen bitartez, xedapen gehigarri bat erantsi zitzaion Administrazioetako Langileen Estatutuaren testu bateginari, eskubide hori arautzeko.

Alabaina, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginari estatu-mailan eginiko aldaketek zaharkituta utzi dute Foru Komunitateko Administrazio Publikoen zerbitzura diharduten langileei buruz Nafarroan dagoen araubidea.

Herrialdearen gainerakoan sektore publikoko langileek zilegi dutelarik baimen edo lizentzia horietaz gozatzea semeak edo alabak 23 urte edo, kasu berezietan, 26 urte bete bitartean, Nafarroan horiek ezin dira eskatu seme edo alabak 18 urte betetzen dituenetik aurrera. Horrek gure funtzionarioak egoera okerragoan uzten ditu

herrialdeko gainerako langileena –sektore publiko-koena eta are sektore pribatukoena– baino.

Foru Komunitateak eskumen eskusiboa izanik Nafarroako administrazio publikoen zerbitzura diharduten langileen estatutu-araubideari dagokionez, beharrezkoa gertatzen da langile horien estatutua aldatzea, erantzun egokia eta berme juridikoduna ematearren minbizia edo beste gaixotasun larri bat pairatzen duen seme edo alaba bat duten familia guztiei, zeinek Espainiaren gainontzeko lurraldeetakoek baino egoera okerragoa pairatzen baitute, lizentzia ordaindurako modurik gabe geratzen direnez seme edo alaba hori adin-nagusitasunera helzen denean.

**Artikulu bakarra.** Aldatzea 251/1993 Legegin-tzako Foru Dekretua, abuztuaren 30ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategina onesten duena.

Hogeita laugarren xedapen gehigarria aldatzen da, testu honekin:

«Hogeita laugarren xedapen gehigarria. Minbi-ziak edo beste gaixotasun larri batek jotako seme edo alaba zaintzeko lizentzia ordaindua.

1. Funtzionarioek eskubidea izanen dute beren lanaldiaren iraupena erdira murrizt dakien, ordain-sari-murrizketarik izan gabe, minbizia edo beste gaixotasun larri bat duen seme edo alaba bat zain-tzeko, beharrezkoa duena zuzeneko zainketa eten-gabe eta iraunkorra gaixotasunaren tratamendu jarraituan zehar, aurretiazko ospitaleratzea behar izanda nahiz behar izan gabe. Salbuespenez, han-diagoa izan daiteke lanaldi-murrizketa, % 99,99ra bitartekoa gehienez, baldin egokiro frogatzen bada beharrezkoa dela helburu hori betetzeko.

2. Lanaldi-murrizketa emanen da seme edo alabaren gaixotasunaren ospitaleratze eta/edo tra-tamendu jarraituak irauten duen bitartean; eta, gehienez ere, seme edo alaba horrek hogeita hiru urte bete arte.

Lanaldi-murrizketa horretarako eskubideari utsiko zaio semeak edo alabak 26 urte bete arte, baldin eta halaber frogatzen badu ehuneko 65eko edo gehiagoko desgaitasun-gradua duela.

3. Xedapen honetan ezarritakoa aplikatuko da tutoretza kasuetan, adingabe-harrera aldi batera-koaren nahiz iraunkorraren kasuan, adopzio-asmoko zaintzaren kasuan edo egoera pareka-tuan, hemen ezartzen diren baldintza berei loturik.

4. Seme edo alaba adingabeak minbizia edo beste gaixotasun larri bat pairatzen duela, bai eta ospitaleratze-aldian eta/edo gaixotasunaren trata-

mendu jarraituaren iraupen-aldian zuzeneko eta etengabeko zaintza jarraitua beharrezkoa duela ere, frogatuko da minbizia edo gaixotasun larria duen seme edo alaba artatzearen ardura duen osasun-zerbitzu publikoko fakultatiboek eginiko adierazpen baten bitartez. Baldin semea edo alaba mutualismo administratiboaren araubide berezian onuradun bezala sartuta badago, frogatze-zeregi-na entitate horretako fakultatiboek beteko dute.

5. Artikulu honetan arautzen den lizentzia ordaindua ematearen ondorioetarako, gaixotasun larritzat joko dira kasuko diru-prestazioa emateko oinarri gisa hartzen den Gizarte Segurantzaren sistemaren zerrendan jasota daudenak.

6. Lizentzia emateko baldintza izanen da bi gurasoek lan egitea. Funtzionarioek ordainsarien osotasuna jasotzeko eskubidea izanen dute, soi-lik, beste gurasoa ez bada arrazoi honi dagokion prestazioaren onuraduna berari aplikatzekoa zaion aurreikuspen sozialeko araubidean. Bi gura-soak funtzionarioak badira, soilik haietako batek izanen du eskubidea bere ordainsariak ez dakiz-kion murriztu lizentzia hau edukitzeagatik.

7. Baldin funtzionarioak seme edo alaba adin-gabe bat baino gehiago badu lizentzia honetarako eskubidea ematen duten zirkunstantzietan dagoe-na, zilegi izanen da bidezko lizentzia bana ematea.

8. Arau orokor gisa, lanaldiaren murrizketa egunero baliatu beharrekoa izanen da, funtziona-rioak ezarritik daukan lanaldiaren lehen eta/edo azken orduetan baliatu ere, zerbitzuaren beharren arabera. Zerbitzuaren funtzionamendu egokiarekin bateragarri izanez gero, zilegi izanen da lanaldi osotan metatzea murrizketa, hilabeteko kontaketa-rekin gehienez ere.

9. Gaixorik dagoena adinduna izan eta ezkon-du egiten bada edo izatezko bikotea eratzen badu, prestaziorako eskubidea bere ezkontide edo izatezko bikotekide den pertsonak izanen du, baldin eta frogatu egiten badu onuradun izateko baldin-tzak betetzen dituela, eta 18 urteko adina bete aurretik hasi bada gurasoaren lanaldi-murrizketa.

10. Adingabe batek berak ez du ezein kasutan eskubiderik emanen artikulu honetan arautzen diren lizentzietako bat baino gehiago hartzeko.

11. Nafarroako Foru Komunitateko Administra-zioan eta haren erakunde autonomoetan, lizentzia hau emanen da Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusiak aurretiaz txostena jaulkirik, lizentziarako ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatu ondoren».

**Xedapen indargabetzaile bakarra.** Arau-indargabetzea.

Indargabetu egiten dira foru lege honetan xedatutakoarekin kontraesanean dauden maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak.

**Azken xedapena.** Indarra hartzea.

Foru lege hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, eta 2025eko urtarrilaren 1ean hartuko du indarra.

---

---

E saila:  
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

---

**11-24/MOC-00103. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita azter dezan adimen artifiziala ezartzeko aukerarik ote dagoen itxaron-zerrendetako datuak hobeki tratatzeko eta hobetzeko**

*OSOKO BILKURAK ONETSI DU*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2024ko urriaren 3an onetsitako erabaki hau, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita azter dezan adimen artifiziala ezartzeko aukerarik ote dagoen itxaron-zerrendetako datuak hobeki tratatzeko eta hobetzeko. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren bidez dituen balia bideak baliatuz, azter dezan adimen artifiziala ezartzeko aukerarik ote dagoen itxaron-zerrendetako datuak hobeki tratatzeko eta hobetzeko”.

Iruñean, 2024ko urriaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**11-24/MOC-00107. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita akordio instituzionala bila dezan Nafarroako Parlamentuan ordezkatuta dauden indar politikoekin, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin, gizarte-erakundeen parte-hartzearekin, giza eskubideak blindatzeko eta gorrotozko diskurtsoei aurre egiteko**

*OSOKO BILKURAK ONETSI DU*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan xedatua ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2024ko urriaren 3an onetsitako erabaki hau, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita akordio instituzionala bila dezan Nafarroako Parlamentuan ordezkatuta dauden indar politikoekin, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin, gizarte-erakundeen parte-hartzearekin, giza eskubideak blindatzeko eta gorrotozko diskurtsoei aurre egiteko. Hona testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du akordio instituzionala bila dezan Nafarroako Parlamentuan ordezkatuta dauden indar politikoekin, Nafarroako Udal eta

Kontzejuen Federazioarekin, gizarte-erakundeen parte-hartzearekin, giza eskubideak blindatzeko eta gorrotozko diskurtsoei aurre egiteko.

2. Nafarroako Parlamentuak gure erkidegoko ikastetxeetan prebentzio-neurriak eta programak ezartzearen alde egiten du. Neurri eta programa horien helburua da aniztasuna errespetatzea eta gorroto-diskurtsoak elikatzen dituzten aurreiritziak eta estereotipoak ezabatzea.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du gizarteari zuzendutako sensibilizazio-kanpainak egin ditzan, gorrotozko diskurtsoen ondorio negatiboez kontzientziatzeko, aniztasunarekiko errespetua sustatzeko eta, hartara, bizikidetzaren alde egiteko.

4. Nafarroako Parlamentua aniztasunarekiko eta bizikidetzarekiko errespetua sustatzeko konpromisoa hartzen du; hartara, Parlamentuaren jardueran eta eztabaidetan gorrotozko diskurtsoak erabiltzearen aurkako neurriak hartuko ditu, Legebiltzarreko kideen jokabide-kode bat onesteko ponentziaren baitan”.

Iruñean, 2024ko urriaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

## **11-24/MOC-00115. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak errefusatu egiten baititu emakumeen eskubideen arloan munduan zehar gertatzen ari diren indarkeria eta atzerakada egoerak**

### *OSOKO BILKURAK ONETSI DU*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2024ko urriaren 3an onetsitako erabaki hau, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak errefusatu egiten baititu emakumeen eskubideen arloan munduan zehar gertatzen ari diren indarkeria eta atzerakada egoerak. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten ditu emakumeen giza eskubideen atzerakada eta indarkeria-egoera horiek, eta Estatuko Gobernuaren premiatzen du, Nazio Batuen barruan kide aktibo gisa dituen erantzukizunen barruan, honako hauek eska ditzan:

1. Talibanen gobernuaren ikerketa eta kontumetea Afganistanen emakumeen aurkako giza eskubideen etengabeko urraketa dela-eta.

2. Talibanengan eragina izan dezaketen neurriak hartzea afganiarren herriari kalterik egin gabe, hala nola zigor espezifikoak edo bidaiadebekuak, NBEn Segurtasun Kontseiluaren ebazpen baten bidez ezarriak modu koordinatuan eta irmoan, talibanek emakumeen eta neskatuen eskubideak urratzeari utz diezaioten.

3. Afganistanen aplikatzen diren gorputz-zigorak salatzea eta horiek geldiarazteko neurriak aktibatzea, hala nola flagelazio publikoa,

exekuzio publikoa, gorputz-atalen anputazioa, lapidazioa eta tratu txarren eta torturen beste forma batzuk, emakumeen nazioarteko zuzenbidea urratzen dutenak Afganistanen.

4. Bidezko epaiketak egiten direla zaintzea, bai eta Iranen emakumei defentsarako duten eskubidea baliatzeko aukera emanen dieten lege-baliabideak erabiltzeko aukera bermatzea ere.

5. Afganistanen emakumeen eskubideak deuseztatzen dituen "Moraltasun Legea"ren ezarpena salatzea eta gaitzestea.

6. Epe laburreko eta luzeko ekimenetan, ikerketa akademikoan eta berdintasuna, ekitatea eta tolerantzia jorratzen dituzten proiektuetan oinarritutako giza eskubideen programak babestea, komunitateei zuzendutako justizia eraldatzailea eta "behetik gorako" ikuspegia erabiltzen dituztenak.

7. Nazioarteko komunitateak eta NBEn beren konpromisoa zabaldu behar dute, ohiko sareetatik harago, eta benetako lankidetzaren eta komunikazio-harremana izan behar dute Afganistango giza eskubideen eta abokatuzaren defentsan konpromiso aktiboa duten emakume manifestariek, giza eskubideen defendatzaile direnekin, eta gizarte zibilaren ordezkariekin eta GKEekin”.

Iruñean, 2024ko urriaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **11-24/MOC-00097. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia- tzen baita amaiarazi dezan hezkuntzaren esparruan adingabeak ideo- logikoki doktrinatzeko saio oro**

#### *OSOKO BILKURAK EZETSI DU*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2024ko urriaren 13an egindako bilkuran, ezetsi du María Teresa Nosti Izquierdo andreak aurkeztutako mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita amaiarazi dezan hezkuntzaren esparruan adingabeak ideologikoki doktrinatzeko

saio oro. Mozioa 2024ko irailaren 17ko 104. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko urriaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

### **11-24/MOC-00104. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia- tzen baita gure erkidegoko langile autonomoen sektoreak proposatuta- ko neurriak jaso ditzan aurrekontuen aurreproiektuan**

#### *OSOKO BILKURAK EZETSI DU*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2024ko urriaren 3an egindako bilkuran, ezetsi egin du María Isabel García Malo andreak aurkeztutako mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita gure erkidegoko langile autonomoen sektoreak proposatutako neurriak

jaso ditzan aurrekontuen aurreproiektuan. Mozioa 2024ko irailaren 27ko 108. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko urriaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

### **11-24/MOC-00109. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia- tzen baita behar adinako diru-kopurua jaso dezan hurrengo aurrekon- tu orokorretan, MRR funtsak agortu ondotik eta EEbP programako funtsak gaizki kudeatzetik heldu diren kalteek sortutako desoreka eko- nomikoei aurre egiteko**

#### *OSOKO BILKURAK EZETSI DU*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2024ko urriaren 3an egindako bilkuran, ezetsi egin du Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioak aurkeztutako mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita behar adinako diru-kopurua jaso dezan hurrengo aurrekontu orokorretan, MRR funtsak agortu ondotik eta EEbP programako funtsak gaizki kudeatzetik heldu diren

kalteek sortutako desoreka ekonomikoei aurre egiteko. Mozioa 2024ko urriaren 1eko 110. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko urriaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias



## **11-24/MOC-00113. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia- tzen baita gizarte-zerbitzuen programa komunitario bat taxutu dezan**

### *OSOKO BILKURAK EZETSI DU*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2024ko urriaren 3an egindako bilkuran, ezetsi egin du Javier Arza Porrás jaunak aurkeztutako mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita gizarte-zerbitzuen programa komunitario bat taxutu dezan. Mozioa 2024ko

urriaren 1eko 110. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko urriaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **11-24/MOC-00114. Erabakia, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premia- tzen baita Barajasko aireportuan dauden ekintzaile sahararrei asiloa ukatu izana berrazter dezan, horien asilo-eskaria modu justu eta garde- nean aztertzen dela bermatuta, nazioarteko zuzenbidearen arabera**

### *BIZIKIDETASUNAREN ETA NAZIOARTEKO ELKARTASUNAREN BATZORDEAK ONETSI DU*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artiku-  
luan xedatua betez, agintzen da Nafarroako Par-  
lamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin  
Nafarroako Parlamentuko Bizikidetasunaren eta  
Nazioarteko Elkartasunaren Batzordeak 2024ko  
urriaren 9an onetsitako erabakia, zeinaren bidez  
Espainiako Gobernua premiatzen baita Barajasko  
aireportuan dauden ekintzaile sahararrei asiloa  
ukatu izana berrazter dezan, horien asilo-eskaria  
modu justu eta gardenean aztertzen dela bermatuta,  
nazioarteko zuzenbidearen arabera. Hona  
testua:

"Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gober-  
nua premiatzen du:

1. Barajasko aireportuan dauden ekintzaile  
sahararrei asiloa ukatu izana berrazter dezan,  
horien asilo-eskaria modu justu eta gardenean  
aztertzen dela bermatuta, nazioarteko zuzenbide-  
aren arabera.

2. Hartu beharreko neurriak har ditzan asiloa  
eskatu duten sahararren giza eskubideak errespet-  
tatzeko; direla ziurtatzeko; bereziki, jazarpen politi-  
koa edota tortura alegatzen dutenenak.

3. Neurri horiek hartzen diren bitartean, ez di-  
tzan Marokora bidal, eta hartu beharreko neurri  
guztiak har ditzan Espainiako haien egonaldia  
osasungarritasunez, egoki eta tratu txarrik gabe  
egiten dela bermatzeko.

4. Nafarroako Parlamentuak arbuia egiten  
ditu Espainiako Gobernuak iragan urriaren 3an,  
osteguna, eta 6an, igandea, eginiko saharar akti-  
bisten deportazioak, eta Espainiako Gobernu-  
ko Barne Ministerioa eta Kanpo Arazoetako Ministe-  
rioa premiatzen ditu urgentziaz Espainiako lurral-  
dera aberriratu ditzan jada Marokora deportaturiko  
aktibistak".

Iruñean, 2024ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**11-23/MOC-00042. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua pre-  
miatzen baita gardentasunaren nahiz publizitate aktiboaren arloetan  
dituen betebeharrak guztiak bete ditzan**

*ERABAKIAREN BETETZEARI BURUZKO ERABAKIA*

Legebiltzarreko Erregelamenduaren 125. artiku-  
luak ezarritakoa betez, honako erabaki hau  
Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean  
argitara dadin agintzen da:

"Lehendakaritza eta Berdintasun Batzordearen  
ustez, Nafarroako Gobernuak Lehendakaritza eta  
Berdintasun Departamentuak bete egin du Nafa-

roako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2023ko aza-  
roaren 16an onetsitako erabakia, zeinaren bidez  
Nafarroako Gobernua premiatzen baita gardenta-  
sunaren nahiz publizitate aktiboaren arloetan  
dituen betebeharrak guztiak bete ditzan".

Iruñean, 2024ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias



